

EUSKAL HERRIAREN

SORRERA

Bazen behin bi herrixken artean mendikate bat.

Herri bateko erregea zahar eta bizarduna zen, oso txikitxo eta oso jakintsua. Bere herriko biztanle denak erropa horiarekin jazten ziren eta gaztelu handi eta polit bat zuten.

Beste herriko erregea gazte eta dotorea zen, oso altua eta oso harroputza. Beti modako erroparekin jantzita. Biztanleak beti arropa urdina erabiltzen zuten eta kristonetako gaztelu borobil eta zatarra zuten.

Beti herri bateko eta besteko gerlariak borrokan zeuden erdiko mendiarengatik eta erregeak oso gaizki eramaten ziren bata bestearekin. Beti nahi izaten zuten beste herriak zerbait gaizki egitea.

Baina egun batean bi herrietako gerlariak zaurituta eta ospitalean zeuden eta ezin zuten jarraitu.

Bi erregeak tratu bat egin zuten denbora asko eta gero. Harresi bat egitea pentsatu zuten, bi herriak batera harresi handia egiten hamairu hilabete batera elkar lanean aritu ziren.

Baina denak batera egon ziren denbora oso polita izan zen. Denbora bat pentsatzen egon eta gero harresia botatzea pentsatu zuten.

Baina gau horretan denak ohean zeudela zeozer arraroa gertatu zen eta zuhaitz handi bat irten zen harresiaren erdian. Hurrengo egunean denak esnatu zirenean ikusi zuten.

Harresiaren erdian kristonetako haritz erraldoi bat zegoen gauean sortuta.

pentsatu zuten Jainkoaren seinale bat zela denak batera egoteko eta dena konpartitzeko.

Beti bi herrietako jende dena igandetean joaten zen otoitz egitera. Pentsatuko duzue zergatik joaten ziren beti igandeta, pentsatzen zutelako beti Jainkoa igandetean trankil eta lurrera begira egoten zela. horregatik otoitz egiten zuten beti igandetean haritzaren ondoan.

- Baina euria egiten duenean zer egingo dugu? esan zuen herri bateko andra zahar batek.

Eta zulo bat egin zuten haritzaren barruan denak trankil eta lasai erresatzeko euria zegoenean.

Eta horrekin batera bi herrietako jendea oso lagun onak egin ziren eta kristonetako herria egin zuten denak batera hiru mendien artean baina ez pentsatu hor bukatzen dela istorioa

Hortik aurrera herri handi hori beste mendikatetara joaten zen ikustera beste mendietan horrelako lixkarrak zeuden eta horrekin batera eurei lagundu euren liskar eta asunto pribatuetan.

Horrela lurralde horretako herri denei lagunduz eta jende berria ezagutuz berriro euren (hirira) iritsi ziren denak pozik eta jende gehiagorekin eta herriarendako gauza gehiago egitea pentsatu zuten.

Adibidez:

-Erloju bat egitea haritz (elizaren) gainean.

-Eskola publiko bat egitea umeendako .

-Parke bat egitea animaliak eta umeak ibiltzeko.

-Ortu publikoak egitea jendeak barazkiak kultibatzeko.

-Urmael moduko pizsina bat egitea jendea udan beroa dagoenean pizsinara joateko.

-Haritzaren ondoan bi erregeendako kristonetako jauregi handi bat egitea eta jendea horra joatea eskaerak egiteko herriaren onurarako.

-Erreka bat egitea jendearendako eta animaliak ura erateko.

-Iturriak hiru mendien artean sailkatuta.

Reforma horiek eta gero erresumako Hiri besala proklamatu ziren.

Baina derrepente beste herriak bateratu egin ziren herria derrokatzeko baina ez zuten lortu.Saiatu ziren baina Hiritarrak oso gogorrak ziren eta porrot egin zuten eta hiritarrek beste aukera bat eman zioten denak batera eta ondo bizitzeko eta baietz esan zien.

Eta horrela sortu zen Euskal Herria.

Ala bazan edo ez basan zar dadila plazan eta atera dadila hiri orretako aritzetik.